

ESKOLAKO AGENDA 21

2014-2015 IKASTURTEA: "MURRIZTU, BERRERABILI, BIRZIKLATU"

ARRIGORRIAGAKO UDAL FOROA 2015-04-17

Bileraren lekua: Arrigorriagako Udaletxea

Hasera eta amaiera: 11,00-12,00h

Udal forora bertaratutakoak:

Arrigorriagako eskolako 10 ikasle (ekordezkariak) eta EA21ko koordinatzailea

Asier Albizua (Arrigorriagako Alkatea)

Miren Agirreazkuenaga (INGURUGELA)

Maidier Fernandez eta Elena Arenas (Udaltalde 21)

ONDOAN, S. Coop. (Jon Zubiria, Iratxe Goikoetxea)

Guztira: 16

Gai-zerrenda

- Alkatearen ongi etorria.
- Ikasleek Alkateari ikasturtean egin duten lanaren aurkezpena, hartutako konpromisoak eta udalari luzatu nahi dizkioten proposamenen aurkezpena.
- Aurkeztutako lana eta egindako proposamenen inguruan Alkatearen erantzuna.
- Azken bi urteetan institutuan egindako lana laburbiltzen duen bideoaren emanaldia.
- Taldeko argazkia.

Aholkularitza etxeko teknikariak ongi etorria eman die bertaratutako guztiei eta jarraian Arrigorriagako BHIko ikasleei eman die hitza, egindako lana aurkezteko.

Ikasle batek hartu du hitza eta egindako **herri diagnostikoa** azaldu dio Alkateari, **emaitzak** hauek izan direlarik:

Egindako udal ibilbidean, **herritarrei** galdetegi bat egin zaie, hondakinak kudeatzeko orduan beraien ohiturari buruzko galderak izan dira. Galdetu zaie ere herri mailan hondakinak era egokian kudeatzeko dauden aukerak ezagutzen dituzten. Lortutako emaitzak hurrengoak izan dira:

- Arrigorriagako herritarrek orokorrean ongi kudeatzen dituzte sortzen dituzten hondakinak, hala ere hainbat kasutan zalantzak dituztela ikusi da.
- Herritarren erantzunak aztertuz ondorioztatu da nahiko akats egiten dituztela hondakinak sailkatzerako orduan (kortxoak, bonbillak, edalontziak bezalako hondakinekin).

Ikasleek ere gelan galdetegi bera egin dute, eta lortutako ondorioak, herri mailan lortutakoen antzekoak izan dira:

- Ikasleek Arrigorriagan hondakinak kudeatzeko dauden edukiontzi eta gune desberdinak ezagutzen ditugu.
- Orokorrean ikasleek edukiontziak ongi erabiltzen ditugun arren, ohartu gara oraindik badugula zer ikasi, hondakin batzuk ez ditugulako ondo bereizten (bosgarren edukiontziaekin eta bonbillak kudeatzeko orduan dudak sortu dira e.a.)

Ikasleek diagnostikoaren ondorioak azterturik, hurrengo **konpromisoak** hartu dituzte:

1. Etxeetan bosgarren edukiontzia jartzen saiatu materia organikoa kudeatzeko.
2. Gure ikaskideei hondakinak ondo bereizten lagundu.
3. Al den neurrian, tresnak eta materialak berrerabili.
4. Murriztu, berrerabili, birziklatu lema martxan jarri, bai etxean bai ikastetxean.

Azkenik, eta herriko egoera hobetzeko asmoz, hurrengo **eskaerak** egin dizkiote **udalari**:

1. Bosgarren edukiontzian jarrita dagoen moduan, beste edukiontzietan marrazki bidez azaltzea zer bota daitekeen.
2. Hondakinen inguruan sentsibilizazio kanpainak eta hitzaldiak egitea.
3. Herrian zehar, arropa, olioak, pilak eta materia organikoa birziklatzeko edukiontzi gehiago behar dira.
4. Herrian txakurren hondakinak biltzeko edukiontzi gehiago jartzea.
5. Birziklapen azoka bat egitea herrian proposatu dute.

Alkateak ideia oso interesgarriak direla aipatu du eta ze motatako sentsibilizazio kanpainak proposatzen dituzten galdetu die ikasleei. Ikasleek bi motatakoak proposatu dituzte: etxebizitzetako atarrietan azalpenekin diptikoak jartzea alde batetik, eta herrian zehar argazki hungigarriak jartzea bestetik. Iraila partean eskualde mailako sentsibilizazio kanpaina bat martxan jarriko dela aipatu du Alkateak, eta kontuan izango direla ikasleen proposamenak.

Edukiontzi gehiago jartzearen inguruan, zehaztasun gehiago eskatu die Alkateak, kokapen zehatzik ia bururatzen zaien eta ikasleek Mendikosolo parkea aipatu dute.

Txakurren hondakinak direla eta, oraintsu habian jarri dutela kanpaina berri bat azaldu du alkateak.

Birziklapen azokaren ideia gehiago sakontzeko eskatu die alkateak eta ikasleek zehaztu diote azoka honetan bigarren eskuko azoka bat egin daitekeela eta materiala birziklatzeko tailerrak ere, herritarren hondakinak berrerabiltzen ikasi dezaten. Alkateak, ideia interesgarria dela erantzun die eta noiz, non eta nola egin pentsatuko dutela.

Jarraian, azken bi urtetan egindako lana aurkezteko bideo bat ikusi dugu, egindako ekintza guztietako argazkiekin.

Amaitzeko, alkateak udalak eskatutakoa kontuan hartzeko konpromisoa hartu du, dena den, ikasleek ere hartutako konpromisoak bete behar dituztela gogorarazi die ikasleei.

Amaitzeko, Alkateak bertaratutako guztiei eskerrak eta zorionak eman dizkien ikasturte honetan egin duten lan bikainagatik. Ikasleek, Alkatearen eskutik oparitxo bat jaso dute eta horretaz gain hamaiketako bat udalaren eskutik.

Saioa bukatutzat emateko, foroko parte-hartzaile guztien argazkia egin da pleno aretoan.



Ekordezkariak ikasturtean zehar egindako lanak Alkateari aurkezten eta Alkatearen erantzuna jasotzen.



Arrigorriagako institutuan azken bi urteetan egindako lan guztia laburtzen duen bideoa.

Alkatea ekordezkariari oparitxo bat ematen.



Udal foroko parte-hartzaileen argazkia pleno aretoan.